

ARTE EDERREN FAKULTATEA. Platoetako lana.

IV eranskina Platoetako lana.

* Segurtasun eta higiene arau orokorrak platoetako lanetan

Ebakuazio bideak

- Tokian tokiko segurtasun elementuak ezagutu behar dira eta larrialdietarako irteerak non dauden jakin.
- Irteerok errespetatu behar dira beti, ezelako objektuekin oztopatu gabe. Honez gain, zehatz-mehatz jakin behar da itzalgailuak, mangerak, segurtasun dutxak eta begiak garbitzeko ontziak non dauden.

Nola jantzi

- Gomendagarria da zapata itxiak janztea eta ez sandaliak.

Arau higienikoak

- Ez jan eta ez edan platoan.
- Ezin erre daiteke.

Banakako babeserako bitartekoak

- Banakako babes ekipoetarako P001G/EHU prozedurarekin bat etorrira, irakasgaiaren ardura duten sail edo pertsonak definituko dute banakako babes ekipoa nahitaez erabili behar den edo ez, egin beharreko eragiketa bakoitzean.

Lan eremuaren baldintzak

- Garbi eta ordenatuta mantendu behar da, libururik, berokirik, poltsarik edo beharrik gabeko ekiporik gabe.
- Eskailera edo aldamiarik erabili beharra izanez gero, galdetu jardueraren arduraren duen irakasleari edo platoaren ardura daraman teknikariari.
- Ez erabili fokuak, jardueraren arduraren duen irakasleari edo platoaren ardura daraman teknikariari kontsulta egin gabe. Gainera, erretzeko arriskua ere badago fokuek duten tenperaturarengatik.
- Zerbait iltzatu edo torlojutu baduzu horman, ken itzazu iltzeak, torlojuak eta beste eta utzi garbi. Gogoan izan iltzeak, torlojuak eta abar ebakiak eta zauriak eragin ditzaketela.
- Eraman itzazu zeuen elementu guztiak, plato erabiltzeko denbora amaitu eta gero.

Portaera

- Adeitsu izan behar da eta sen ona erabili ikasgela, lantegi, plato eta laborategietan. Ez da txantxarik egin behar, ez korrika egin, jostatu, bultzatu edo oihuka.

Baimendu gabeko praktikak

- Ezin da inola ere irakasleak edo ikertzaile nagusiak baimendu gabeko praktikarik egin, ez eta elementu arriskutsuak martxan utzi gainbegiratu gabe.

Ekipo eta gailuen erabilera

ARTE EDERREN FAKULTATEA. Platoetako lana.

- Ez da halakorik erabili behar nola funtzionatzen diren ondo jakin gabe. Zalantzarik izanez gero, galdetu irakasleei edo, eremu zehatzen kasuan, teknikariari.
- Egiaztatu momentu guztietan gailuen mantentzea nola dagoen, ekipoaren jarraibideen arabera.